

BILBAO, EUSKARAREN BIZITZAN

Egoitza, Bilbo, 1994-11-25

Xabier Kintana

***“Agustin Berreteaga
adiskide ahantzezinari
betiko oroitzapenaz”***

Jaun-andreok, senide, lagun eta adiskideok, agur guztioi.

Zuen adiskidetasuna eta, seguraski, pazientzia ere frogatzeko aukeratu dudan gai honekin, nolabait, aspaldiko zorra kitatu nahi nuke. Gizalegezkoa omen da nork bere gurasoenganako maitasuna agertzea, eta ni, dakizuenez, Bilboko seme nauzue. Ez ditugu aita-amak maitatzen, ordea, onenak, begikoenak edo hobezinenak direlako, geureak ditugulako baizik. Horregatik, nekez aldatuko genituzke geureak, trukean, inorenak hobesteko.

Eta nik neuk, Bizkaiko hiriburu den Bilbao honekin, halako zerbait sentitzen dut. Badakit berau ez dela Donostia bezain polita. Bistan dago ez duela Baionaren lasaitasuna, Donibane Garaziko inguru zoragarriak, Gasteizko aire eta zeru garbi atseginak, Iruñeari darion histori kutsu sarkor hori edo Mauleren garbitasun imitagarria. Geure inguruan industri kutsadura, zirkulazio zaratotsa, ibai zikina eta zirimiru etengabea pairatu behar izaten ditugu maiz, eta hala eta guztiz ere, Iparragirrerren hitzak are mugatuago erabiliz, “baina bihotzak dio”, bertan jaio garenontzat txoko paregabea da gure botxo hau.

Egon lasai. Ez natzaizue hemen hasiko, herri-minez, neure jaioterriaren ederrak goraiatzan. Aitzitik, Ibaizabal bazterreko hiri honek euskal kulturaz izandako garrantzia gogoratzeri nator, hizkuntzari dagokionean batez ere, hori gomutatzea batzuentzat interesgarri, beste batzuentzat seguraski argigarri eta zenbaitzuentzat agian ereduagarri izango delako esperantzan.

Norbaitek pentsa dezake, ordea, eta arrazoia luke, ez dela ene aldetik bat ere gizabidezkoa neure aurrekoa, hots, Eusebio Erkiaga euskaltzain zendua hemen aipatzeke uztea. Eta egia esan, ohitura izaten da, inoren lekua hartzean berriak zaharraren merezimenduak gogoratu eta publikoki aitortzea, eta Erkiaga jaunak, eduki, merezimendu franko zeuzkan horretarako. “Eginak ez du egin-

kizunik” diosku esaera zaharrak, are gutxiago ongi eginik dagoenean, eta duela bi urte, 1992.eko maiatzaren 22an, Bizkaiko Diputazioak Erkiaga jaunari ondo merezirik egin zion omenaldian, Karmelo Etxenagusia euskaltzain urgazleak haren bizitza eta literatur emaitzak zehatz-mehatz eta ezin hobeki azaldurik utzi zizkigun. Uste dudanez, haren biografia eredugarri eta lan ugarien zerrenda hori honez gero argitaratzeko bidean izango dira. Hori dela eta, alferlana litzateke, eta plagio barkezina gainera, orain ni haren hitzak zuen aurrean errepikatzen hasiko banintz. Horrela ba, puntu hau argitu ondoren, nakion bada neure gaiari, Bilbao hiriak euskararen bizitzan izandako garrantziari, hain zuzen.


Lehen lekukotasunak

Bilbon argitaraturiko lehenbiziko liburua, 1596. urtekoa da, *Doctrina christiana en Romanze y Basquenze* deritzo, eta izenak berak dioenez, doktrina katolikoa ikasteko obra bat da, era horretan euskaraz egindako lehenengoa. Egilea Joan Perez Betolatzakoa zen, jatorriz arabarra.

Euskal letretan azaltzen zaigun lehen bilbotarra, aldiz, Rafael Mikoleta izan zen, 1611an jaioa eta apaiza izandakoa. Kuriosoa da, ene ustez, eta aldi berean, sinbolikoa ere bai, bilbotar batek idatzirik lehenbiziko euskal liburua, hain zuzen, gure hizkuntza ikasteko metodo bat izatea, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 1653an datatua, obra horrekin gure hiri honek bere jatorrizko hizkuntza berreskuratzeko izango zuen garrantziaren profetia egiten zelako. Liburu horri esker, jakin badakigu garai hartan Bilbon egiten zen euskara nolakoa zen, eta harrigarria bada ere, gauza batzuetan behintzat, baterago zetorren oraingo euskara batuarekin gaurko bizkaierarekin baino. Adibidez, *zellan* moduzko galdetzailearen ordez, *nolan* esaten zen Bilbon garai hartan, gure oraingo *nola* arruntaren antzera, hain zuzen.

Orduko bilbotarrek baina, bazekiten euskaraz eta dirudienez Mikoletak bere hizkuntza kanpotarrei irakasteko asmoz idatzi zuen bere liburua, horren eskueskribua non eta Londresko *British Museum*-en aurkitzeak argi erakusten digun bezala. Edonola ere, scripta manent zioten klasikoek, eta letra idatziaren irauteari esker gaurko bilbotar, bizkaitar eta euskaldun guztiongana heldu dira, denboraren tuneletik bezala, Bilbao zaharreko izen euskalduneko kale hauetan bertan bizi izandako herkieen berbaro urruna, batzuek ahantzerazi nahiko liguketena. Mikoletari zor diogu, beraz, hiri honen hizkuntz sustrai zaharrak goan gordetzea.

Eta elizgizonekin segitzeko, esan dezagun, mende berean, 1656an, Martin Otsoa Kapanaga mañariarrak beste doktrina bat argitaratu zuela Bilbon, *Exposición breue de la Doctrina christiana* izenekoa.



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Xabier Kintana

Bestaldetik, Alfonso Irigoien euskaltzainak argitaratu dituen datuei esker, badakigu Mikoletaren denboran, orain dela hirurehun urte, bilbotarrek, euskaraz berba egiteaz gainera, Donibane Lohizuneko merkatariei, haiekin izaten zituzten tratuetan, eskutitzak euskaraz egiten zizkietela (1).

Zenbait Gabon-kanta izan ezik, ez dugu datu askorik, nik dakidala behintzat, hurrengo mendeko bilbotarren hizkuntza nolakoa zen jakiteko, baina ezerk ez diosku euskara galdu zutenik, eta tarte horretan gauzak ez ziren, seguraski, asko aldatuko. Hortaz, ehun urteko salto handia egin beharko dut, XVIII. mendearen gainetik.

Baina aurrera segitu baino lehen, puntu bat argitu nahi nuke. Izan da, Espainiako Hizkuntz Akademiako kide den Gregorio Salvador jaun txit argia adibidez, Bilbao eta oro har Euskal Herri osoa, euskalduna izan baino lehen beti erdalduna izan dela esan duenik, horrela, akademikoak izan arren, batzuetan memelokeriak esatetik inor ez garela libratzen frogatuz; baina ez dut uste horrelakoen probokazio ergelak kontutan hartu behar ditugunik. Hala eta guztiz,

(1) Cfr. Alfonso IRIGOYEN: "Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por Fermín de Basauihuaso a Joanes de Callo a San Juan de Luz", *Euskera*, VII, pp. 259-269.

gure artean, Bilboren jatorrizko euskalduntasuna ukatzeraino heldu barik ere, inoiz, gaurko Bilbao erabat erdalduna dela esan da, eta Iruñea, Baiona edo Gasteizen pare aurkeztu nahi izan zaigu, hau da, erdal eremu baten erdian kokatua balego bezala eta euskal enbor biziarekin loturarik ez baleuka legez. Hori baina, ez da egia.

Joan den mendean hasita, azken karlistadatik hona batez ere, gure artera inguruko erdal herrietatik jende asko etorri da Bilbora bizitzera, eta etorkin horiek, beren kopuru handiarekin, eta beren zerbitzuan era eksklusiboz izan duten administrazio eta irakaskuntza espainolari esker, Bilboko bizimodua erdaldundu dute, urtegi bat egitean hara ekarririko urak haranaren sakoneko lehengo etxe jatorrak itotzen dituen bezala. Baina bere inguru osoa oraintsu arte euskaldun-euskalduna izan du Bilbok, bai Ibaizabalen ezker aldean eta bai eskualdean ere.

Ni neu Artxandapeko Uribarri auzategian jaio eta hazia naiz, eta gogoan dut ene haur denboran, orduko baserri eta txakolindegietan jendea normalean euskaraz mintzo zela, eta gaur ere bai, oraino zutik gelditzen diren etxeetan behintzat. Mendebaldean, berriz, Pagasarri aldeko baserrietako euskararen lekukotasunak bildu dizkigu duela gutxi Iñaki Gaminde azterlari trebeak (2). Hori dela eta txikitan euskaraz jakin ez dugun bilbotar askok, ezagun-ezagunak izan ditugu behintzat Emiliano de Arriagak (3), orain dela ehun urte, bere *Lexicón del bilbaino neto*-n metaturiko hitzak, *no dejar ni los hondakines, que txirene, sagutxu, quedarse neke, arraingarri, zaran, hestegorri*, etab. Bestalde, Adrian Zelaia jaunari aditua diot bere umezaroan Barakaldo inguruko baserretarrek ere euskaraz egiten zutela. Beraz, euskararekiko etengabeko lotura horrek oraintsu arte iraun du, eta hausketa ezin berriagoa da.

Bilbao, euskaldunen elkargune

Gauza jakina denez, munduko hiri handi, portu eta merkatalgune guztiek erakartze indar berezia izaten dute inguruko herritsuen gainean, eta gure Bilbao ere ez da salbuespena izan. Hori dela eta, Didako Lopez Harokoak fundaturiko hiri honetara aldirietako jende asko heldu eta bertan gelditu ziren. Horiek guztiok, jaiotzez bilbotarrak izan ez arren, Bilbok elkartu eta beren bizimodu eta emaitzak hementxe burutu zituzten heinean, neure hitzaldi honetan bertoko giroaren partaide eta moldatzailetzat jotzen ditut, jatorrizko bilbotarrek besteko eskubideekin gainera, gure hiriaren bilakabidean haien eskua ezin utzizkoa delakoan.

(2) Ikus Iñaki Gamindek oraintsu argitaraturiko *Bilboko Larraskituko euskaraz. Lexikoa eta testuak*. Bilboko Udala, Bilbao, 1994.

(3) Emiliano DE ARRIAGA: *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto*, Bilbao, 1896.



Xabier Kintana Urriaga

Horietako bat, adibidez Jose Pablo Ulibarri Galindez Okondoko arabarra izan genuen (1775-1847), Abandoko zinegotzia eta elizate honetako ahalduna Bizkaiko Batzar Nagusietan. Joan den mendearen hasieran euskarazko irakas-kuntza bultzatu, euskarazko eskribu mordoia idatzi eta Euskal Akademia sortzeko lehen proposamena egin zuen. Hark sortu zuen, “eskola” esateko, *ikasola* hitza, geroago *ikastola* bilakatuko zena. Haren izena daraman Bilboko euskal-tegi batek berak ereindako euskal kezkek oraindik bizirik dirauela argi erakusten digu.

Joan den mendeko karlisten gerrateek, Mitxelenaren ustez egiazko askapen nazionalerako herri-borrokak izan zirenek, eta ondorengo foru galtzeak, orduko European zebilen erromantizismo giroaz nahasirik, euskal nazionalismoa itxuratu zuten.

Antzinateko denbora klasikoetatik argi ageri da hiriek zer nolako garrantzia izan duten, jendeak elkartu eta nazio-kontzepzioa eratzeko orduan. Ez da kasualitatea, nik uste, ekialdeko eta mendebaldeko hizkuntza askotan hiria eta Estatua, (hebr. *madinah*, gr. *πολις*, alem. *Stadt/Staat*) bi-biak berba berarekin izendatzea. Izan ere, zibilizazio hitzak, latinezko *civitas* hitzetik eratorriak, argi erakusten digu kaleko gizaguneak izan direla historian zehar kulturaren egiazko hasierak. Eta horrek azal diezaguke euskaltzaletasunean eta gure nazio-sentimenduen eraketa intelektualean euskal hiriek eta kaletarrek, eta Bilbok bereziki, izandako garrantzia.

Euskaldunen sentimendu nazionalak, ordea, ez ziren joan den mendean “ezerezetik asmatu”, punta bateko eta besteko interesatu batzuek bestela sinesterazi nahi badigute ere. Kultura pixka bat duenak badaki, gutxienez, Etxeparek, Leizarragak, Oihenartek, Pozak, Axular eta Larramendik, zeinek bere erara, goraiapatua zutela “euskal nazioa”. Hemeretzigarren mendeko nazionalistei egiteko gelditzen zitzaaien bakarra, beraz, lehendik zetorren sentimendua bideratu eta horren aplikazio politikoa ematea besterik ez zen.

Horien artean kokatu beharko litzateke, adibidez, Pedro Novia de Salcedo bilbotarra (1790-1865). Bizkaiko diputatu nagusi, foruzale, eta euskaltzalea izandako hau 1838an moldatzen hasitako *Diccionario etimológico del idioma bascongado* liburua, 1887an, egilea hil eta gero, Tolosan Lopezek argitaratu zuen. Ostera ere, badakusagu herriarekiko loturak euskararen aldeko jarrera bultzatzen zuela. Beraren inguruan zegoen giroaren adierazle, 1864an, Gernikako Batzarretan Bizkaiko maisuek euskaraz jakin beharra tratatu zen, eta euskarazko katedra bat sortzeko komenientzia ere bai —eta hitzez hitz irakurtzen dut orduko batzarraren akta—:

“teniendo sin duda muy presente el axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad” (4).

Gogoan izatekoa da, aipaturiko urte horretan Sabino Arana ez zela oraindik jaio, eta, hala eta guztiz ere, bazela hemen abertzaletasun giro nabarmena, hizkuntza eta foruen inguruan bilbatua. Giro berberori, derradan bidenabar, mendearen azken aldean Fidel Sagarminagak, Bilboko alkate izandakoak, fundaturiko “Euskalerria” elkarte foruzalean mamituko zen.

Honela uler daiteke Bilbao liberal baina batera foruzale honek; Jose Maria Iparragirre gipuzkoar ospetsuari 1855ean, Madriletik itzuli zenean, egin zion harrera beroa. Horrek txunditurik eta haserre utzi zuen Bizkaiko gobernadorea, hura agurtzera etorririko euskaldun ugarien aurrean Gernikako Arbola, euskal himnoa kantatzen zuelarik, “adoratzen zaitugu arbola santua” esatean jende haiek bat-batean belauniko jarri zirelako; eta hargatik Madrilera deitu zuen, kitarra batekin hainbat herritar erakartzen zekien “arriskugarri” hura gartzela-

(4) Alfonso IRIGOYEN: *De re philologica linguae uasconicae III*, Bilbao, 1990, 293. orr.

ratzeko baimena eskatzeko. Hori dela eta, hemendik alde eta “Santander aldera”ko bidea hartu behar izan zuen Urretxuko kantariak.

Hiru erraldoi sokatiran

Euskararen aldeko giroa bazegoen, beraz, Bilboko eskenatokian Resurrección Maria de Azkue lekeitiarra, eta Migel Unamuno eta Sabino Arana Goiri bilbotarrak agertu zirenean. Madriletik Estatuak bere administrazio-, soldadutza- eta irakaskuntza-guneetatik etengabeki hedatzen eta bultzatzen ziharduen erdal giro prestigiotsu hartan, baziren, korrontearen aurka, bertoko herri zapaldu eta ukatuaren alde boza goratzen zekitenak.

Deus gutxi esan behar dut Azkueren euskaltzaletasunaz. Haren gramatika, morfologia, folklore eta hiztegi lanak aski ozen mintzo dira beren aitaren faborere. Euskaltzaindi honek bera du fundatzaile. Haren *Diccionario vasco-español-francés* famatuan ondoko hiztegi guztiak oinarritu dira, eta Akademiak orain burutzen diharduen lexikografi lan erraldoiak, Koldo Mitxelena hasi eta orain Ibon Sarasolaren gidaritzapean segitzen duenak, Azkuerena izan zuen iturburu. Behialako gipuzkera osotuarekin eginiko saio hura ere euskara batzeko ahalegin goiztiarra besterik ez zen, ondorengoek, zuzentzeko eta osatzeko bada ere, kontutan hartua. Gehiegizko garbizalekeriaren eta hizkuntz manipulazioen arriskuak ere zuhurki salatzen jakin zuen Azkuek bere garaian.

Sabinoren eragina, bestetik, hortxe dugu: euskal ortografia finkatzeko urrats asko hari zor zaizkio, eta poesian bertsoak neurtzeko jarririko arauak ere bai, ondorengo olerkariak haintzat hartuak. Bestalde, ezin nagoke aitortu gabe Aranak euskal arlorako ekarriko emaitza baliosa. Askok, ni barne, Sabinoren purismoa kritikatu dugu. Baina guztiok geure garaiko umeak izaten gara, eta kontua ez da hark egindakoa gaizki ote zegoen, baizik eta ea, une eta giro hartan, gure hizkuntzaren ikerlanak hasirik ere ez zeudenean, gauzak hobeki egin zitezkeen ala ez.

Noski, Sabinok ezin jakin zitzakeen, guk gaur dakizkigun neurrian behintzat, euskarak hitz berriak asma-sortzeko zituen baliabide jator guztiak; gure ondorengoek guk baino gehiago eta hobeki jakingo duten arrazoi berberetatik. Baina halere, gure hizkuntza erdarapeko morrontza kaltegarritik ateratzen saiatu zen, borondaterik onenarekin eta ahal zuen modurik hoberenaz. Eta emaitza konkretuetan beti asmatu ez arren, haren helburua eta kezka behintzat ederki txertatu zuen bide beretik segitu dugunongan. Gaur, *idatzi*, *ikurrina* edo *batzoki* moduko hitz batzuk, Aranak lehen aldiz moldatuak, Euskal Herri osoan erabiltzen dira.

Baina Aranak euskal alorrean utziriko emaitza handiena, zalantzarik gabe, Azkuek berak aitortu zuenez, hizkuntzaren garrantzi teorikoa azpimarratu eta hori bere programako gainerako eskakizunekin batera jartzea izan zen, eta, gure

gizartean euskara erabat bazterten eta mespreziatzen zen garai ilunean, hari esker gure mintzaira defendatzen zuen lehen talde politikoa antolatuta zuen, hau da, giza multzo eratu bat, alderdi trinko bat, erdalduntzeko erasoei beti aurka egiteko prest. Eta ideologia hori Bilbotik hasi zen zabaltzen, Sabinoren eragin politikoa bitartez.

Badakit, eta arrazoia ez dute falta, gure artean boz batzuk entzun direla euskarari halako edo holako ideologia abertzaleekin lotuegirik egoteak zer nolako kaltea dakarkion salatzen. Izan ere, Euskal Herritar ororen hizkuntza inoiz euskara izango bada, kolore guztietakoek haintzat hartu beharko dute bera, eta horrexegatik inork ez luke guztion hizkuntza erabili behar "beraren" bandera edo balio propio, berezi eta bakarra balitz bezala.

Ez nuke gezurrik esango, ordea, gure hizkuntza beti "hortxe", guztien aurrean, egon dela gogoratuko banizue; eta Mari Errauskin gizaixo horri nahi zuenak luza ziezaiokeen, lagungarri, eskua. Zergatik batzuek bai eta besteek ez dioten kasurik egin, norberak susma beza; baina ez da ustekizunetan aritzea, gaixorik eta hiltzear zegoenean norbaitzuek hura onartu, zaindu eta jaso ez balute, gaur euskara mintzaira hilen linboan legokeela pentsatzea.

Bat nator, hobe ez, orain arte maitasunez gorde dutenei esker bizirik dirauen euskara hori, hemendik aurrera zabaldu, hedatu eta, alderdikeriak alde batera utzita, guztiena egiteko gogo horrekin. Baina begien aitzinean eta eskuaren aldamenean zuten diamantearen balioaz konturatu ez edo eta hura ostikoperatzen ibilitakoek, lotsa eta zentzua balute behintzat, ez liokete besteri hartaz arduratu izana aurpegiratu behar, eta bai herri honi barkamena eskatu beren oraintsu arteko arduragabetasun itsuagatik.

Eta diodanaren erakusgarri, hortxe dugu azken hauteskundeetan, alderdi politikoei beren propagandan euskarari eman edo ukatu dioten tokia... non eta euskara, aspaldiko HAMALAU URTEOTAN ofiziala den herrialde honetan. Kontua da, nazionalista batzuek euskara arma politikotzat daukatela salatzen den bitartean, sarriegitan ahantzi egiten zaigula beste nazionalistek asmo berberarekin darabilteela erdara ere, eta mundu guztiak badaki, hizkuntza bakoitzak duen pisuagatik, min handiena zeinek egiten duen. Beraz, nori berea da zuzenbidea, gure zaharrek ziotenez.

* * *

Baina natorren harira. Hirukote horretatik Unamuno gelditu zait aipagai. Seguraski batek baino gehiagok pitxi eritziko dio nik Migel Unamunokoa bilbotarra euskaltzale gisa aipatzeari, eta horrek argitasunen bat merezi du. Hasteke, esan behar da Unamuno, euskara nagusitan ikasirikoa zela, garai hartako euskaldun berria, hau da, Campion, Urkixo, Olabide, Arana Goiri eta beste batzuk bezalakoa. *Euskal Erria* aldizkarian Gernikako Arbolaren omenez artikulutxo bat idatzi zuen, eta Aita Santi Onaindiak don Migelen zenbait euskal

poema bildu zituen bere *Milla Euskal Olerki Eder* antologian; lantxo guztiotan bilbotarraren nahia eta ezina elkarren lehian azaltzen zaizkigu, adierazi nahi zuena ez baitator maiz bat berak zekien euskara urri eta inoiz okerrarekin.

Geroago lehian ibili zen Unamuno Azkue eta Aranarekin Bizkaiko Diputazioak jarritako euskal katedra lortzeko, eta horrek ederto erakusten du garai hartan ez zuela inondik ere euskara mespreziazten. Euskararen aurkako jokabidea ondoren garatu zuen, bizimodua atera beharrak hemendik kanpora, Madril eta Salamancara, eraman zuenean. Han orduko hizkuntz aurreritzi okerrak bereganatu zituen, garai hartako arrazismo kolonialak nolabait hizkuntz arlor iraganikoak. Izan ere, alde batetik lehen mailako kultur hizkuntza dotore eta trebeak jartzen ziren (frantsesa, ingelesa, espainola, alemana...) eta bestetik herri atzeratu eta kolonizatuen bigarren mailakoak (adibidez, arabiera, zulu, indiera, vietnamiera, tagalog, ketxua, nawatl, bretoiara eta, noski, euskara bera ere bai), eta horiek, jakina, inperialisten ustez, ez zuten balio goi mailako kultura adierazteko, horiek suntsitzekio zerabiltzaten ahalegi guztiak, bide batez, justifikatuz (5). Unamunok, seguraski hori sinetsi zuen, edo sinetsi nahi izan zuen, horrela euskara ikasteko zerabilen borroka latza konpontzen zitzaiolako; aurreritzi horri esker, bere pentsaera gorena azaltzeko balioko ez zion mintzaira hura gehiago ikasi beharrik ez zuelako.

Edonola ere, Unamunori euskara alde batera uztea maiz aurpegiatu diogun arren, abandonismo horretan ez zuen erabateko arrazoirik falta. Garai hartan gure hizkuntza dialektotan banatua eta literatur eredu baturik gabea zen, kultur hitzen aukera egiteko bide argirik ezaz eta gehiegizko garbizalekeriaren zamapean, eta horregatik ez zegoen oraindik frantsesa edo espainolarekin lehian eroso ibili eta burua tente ateratzeko moduan. Landu beharra zeukan oraino. Unamunori, hortaz, lantze-bide horretan saiatu ez izana kritika diezaiokegu. Izan ere, euskarak halako intelektual prestigiotsuen premia zuen herri xehe maila apal hartatik irteteko, baina bera ez zen gai laguntza hori emateko. Harelere, gure hizkuntzaz egin zuen diagnostikoa ez zegoen erabat oker.

Bere lan guztiak erdaraz idaztean, azken buruan, Sabino Aran bezelatsu jokatu zuen, eta bata euskararen kontra eta bestea alde agertu arren, bi-biek erosoan zuten erdara batua erabili zuten. Baina Unamunok, euskarari egin zion kritika zela eta, bertoko euskaltzale askoren bihotzak haserrez sutu eta bera oker zegoela frogatzen saiatu ziren. Hortaz, "Bizitzaren sentimendu tragikoa"ren egileari hainbeste gustatzen zitzaizkion paradoxetako bat erabiliz, euskara mespreziaztean, jende asko bultzatu zuen haren defentsan, bera estimatu, landu, batu eta kulturarako egokitu arte. Bertoko jendearen izaera ezaguturik,

(5) Gogoan izan Espainiak Afrikan, Amerikan eta Ozeanian egindako kolonizazioaz oraintsu arte guztiok eskolako maisuei harroki entzundako "*les enseñamos nuestro idioma*" hura, behin eta berriro errepikatua. Horrek, noski, aldean gutxiespenezko "*porque la suya no valía para nada*" inplizitu bat zeraman, bertako jendeek hara espainolak heldu baino lehen elkarrekin ezin komunikatuz ibili edo maia, azteka edo inken moduko goi mailako kulturak eraikitzeko gai izan ez balira bezala.

eta bere azken urteetako pasadizoen argitan (6), nik neuk, ausartegi agian euskararen aurkako jokabide horretan ez ote zuen prezeski kontrakoa nahi susmatuko nuke, Kirikiñok, Lizardik, Salbatore Mitxelenak, Txillardegik, Martin Ugaldek eta euskara lantzen eta batzen arituriko beste lagun askok behintzat gogoz hartu diote harrez gero Unamunori desafio-eskularrua.

Bilbao, han bere dongeak birao

Baina Bilbok, eguzki-distiren ondoan, baditu bere hodei ilunak ere eta, egi-zaletasunak beharturik, ez dizkizuet horiek ezkutatu nahi. Izan ere, gure hiri handietako jendeek sarritan metropoliarekiko erabili duten lilura eta txakur leialaren menekotasun hori ez da gaurkoa. “Gatzean gatzean baina ez Ibar-guengorean” Erdi Aroko esaera zaharra, adibidez, garai hartako nobleen arteko ohiko mintzaira zein zen jakiteko lekuko ederra da. XVIII. mendean Larramendik Gipuzkoako hirietako zaldun erdaltzaleak salatzen zizkigun, orduko andre euskaltzaleak gorai patzen zituen bitartean. Eta Bilbon, administrazioa eta irakaskuntza espainieraz derrigorrez jarri zirenetik batez ere, lehenagoko sus-traiko joera horiek neurri handiagoan islatzen hasi ziren.

Gonbaraketak, maiz atseginak izan ez arren, askotan argigarriak dira, eta horregatik ez zaigu gaizki etorriko, adibidez, garai hartan Katalunian zer gertatzen zen gogoratzea. Diotenez, XIX. mendearen hasieran Bartzelonako burgesei dotoreago iruditzen zitzaien gaztelaniaz egitea, eta katalana morroiek in mintzatzeko besterik ez zuten erabili nahi. Erdararekiko lilura horrek, ordea, Madrileko burgesiak katalan “probintziano” haiekin botere politikoa erdibanatzeko bat ere gogorik ez zuela konturatu arte besterik ez zien iraun. Madrildarren mesprezio hari antzeko gaitzespenaz erantzun zioten eta espainole-nak utzi eta beren hizkuntza eta usuario propioetara itzuli ziren katalanak. Ondoren Renaixença etorri zen, gaurko Katalunia moderno eta errotik katalanaren oinarriak ezarri zituen mugimendua.

Bilbok, ordea, ez zuen holakorik izan. Eta hor gure nazionalismoak hizkuntzarekiko bestelako jokabidea izan zuela esan dezakegu. Abertzaleek euskara maila teorikoan gorai patu arren, ez zuten inoiz gehiegi praktikatu. Orduko bilbotar gehienek erdara besterik ez zekitela ikusirik, Aranak, bere herritar askok galdu berria zuten hizkuntza berreskuratzeari ekin beharrean, errazago eta ekonomikoago eritzi zion haien egoera erdaldundua eredarri jartzeari, euskara ez zekien baina euskal deituetan bere “arrazaren” jatorria garbi erakusten zuten “euskotarra”ren figura kanonizatuz.

(6) Ikus adibidez, neronek Jose Mari Uzelai pintatzaileagandik bildurikoa: *Nazioarteko Ipui-nak*, Donostia, 1980, 84-85. orr.



Ezkerretatik eskumatara: Xabier Kintana; Juan Mari Lekuona; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Endrike Knörr eta Jose Antonio Arana Martija.

Politikariren batek oraindik ez badaki ere, euskaldun nazioaren izen historiko zahar eta jatorra Euskal Herria da, Azkuek, Kanpionek eta beste askok behin eta berriro gogoratua eta Euskaltzaindiak autonomi estatutuan errespetatzeko eskatu behar zuena. Hortaz, euzkotar eta Euzkadi, izen berriak ditugu, duela ehun urte Sabino Aranak asmatuak, batez ere euskaraz ez zekiten bilbotar erdaldundu haien lotsa estaltzeko. Izan ere, Sabinok, konturatu barik, haien antz eta irudira neurturiko nazio-eredua projektatu zuen, eta “euzkotarren aberria Euzkadi da” harekin *de facto* “Euzkadi euskara ikasi beharra sentitzen ez dutenen aberria da” esaten zuen, edo gordinago oraindik, euskara ikasi nahi ez dutenena.

Kontraesan garbia zegoen —eta dago— hor. Alde batetik bilbotar erdaldun horiek oso arro zeuden, “bertokoak” zirelako, eta erdal hizkuntza eta kultura, “kanpotarrak” zirela esaten zuten. Baina euskara ez zekiten eta zerabilten neurrian, bihotzez arrozkeria horien maitale, praktikatzaile eta goresle faktikoak ziren, kolonizatuak kolonizatzailearenganako omen duen Stockhomeko mirespen-sindrome gisako horrekin, hura leialki imitatzena bultzatzen duena.

Ondorioak larriak bezain bistakoak ditugu: Gure herriaren jatorrizko izenean hizkuntzak duen ezin utzizko garrantzia bigarren mailara pasa, euskal-

duntasuna norberak merezi gabeko deitura administratibo espainoletan oinarritu, gure ezaugarri nazional nagusia ez berreskuratzeko aitzaki ederra asmatu eta kanpoko jendeari, hizkuntzaren kasuan ez bezala, bertakotzeko oztopo gaindiezinak jartzea. Hizkuntza, ez dakigunean, ikasi eta lortu egiten da, baina arraza edo Rh negatiboa, ordea, ez.

Halere, praktikan euskara hain gutxi interesatzen zitzaien bilbotar burgesia horrek, uda ematera herrietara joaten zirenean, euskaldun baserritar eta arrantzaleen artean “kaletar usuario dotore erdaldunak” hedatzen zituen, baina bere nazio kontzientzia teoriko txarra garbitzeko edo, euskara “besteek” lantzea begi onez ikusten zuen, hura sinbolo nostalgiko eta sakratua balitz bezala. Euskara hori, bestalde, egunero erabiltzekoa ez zenez, erraz idealiza zezaketen, haren barruan azken muturreko garbizalekeria guztiak sartu arte.

Beraz, nahiz atsegina ez den, aitortu behar da Bilboko euskaltzaleen giroa, Hego Euskal Herriko beste anitz hiritakoa bezala, euskal abertzale erdaldunetz inguratua egon dela, eta horiek, normalean ukatzen ez zieten laguntza politikoaren ondoan, sarriegi arduragabetasun ia absolutua azaltzen zutela. Kasu gehienetan, eta honetan ere Krutwigen hitzei natxakie, haientzat euskara heraldika arloko zerbait zen, beren deituren misterioa azaltzeko, edo eta lema, izenburu eta eslogan kriptikoak moldatzeko besterik balio ez ziena.

Edonola ere, eta pertsona eta gizarte orotan izaten diren kontraesan guztiak gora behera, Bilbon euskararen aldeko mugimendua bizirik zegoen eta aurrera egiten zuen. Eta horrela, mende bat lehenago Ulibarrik nahi bezala, Bilboko diputatuak ziren Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu jaunek Euskaltzaindiaren fundazioa proposatu zuten 1918.eko urtarrilean.

Bilbao, bestalde, eragin handiko agerkarien sorleku izan zen: *Ibaizabal* euskal aldizkaria eta, batez ere, *Euzkadi* egunkaria hor ditugu, garai hartako euskaltzaleatasunaren lekuko. Haien orrietan Kirikiño eta Azkue, bezalako idazleek ezaguterazi zizkiguten beren lanak.

Bilbon argitaratu zen, era berean, lehenbiziko euskal egunkaria, *Eguna* alegia, Augustin Zubikarai ondarrutarraren, Eusebio Erkiaga lekeitiarraren eta orduko beste lagun batzuen lanari esker; gerra giro hartan ezina ustegabeko egi-na, alegia.

Gerraondoko giroa

Gerra etortzean, lehenbiziko Euskal Gobernu Autonomikoa Bilbon kokatu zen, baina orduko egoera larriagatik ez zuen astirik izan euskararen alde gauza handirik egiteko. Gero gerraondoa heldu zen, erbesteratze, gartzela eta erre-presio ezagunekin.

Katakunbetako garaia izan zen hura. Erregimenak bere kanpoko eta barruko kolaborazionistekin, ongi jakin zuen itotzen hemengo euskal zantzo guztiak. Administrazioa, eskola, prentsa, irratia... dena oso ongi antolaturik zegoen euskal kutsurik txikienaren aurka jotzeko. Gure hizkuntza galerazirik eta multaz zigorturik zegoen orduan, Katalunia eta Galiziakoa bezala; eta, gauza kuriosoa, nik dakidanez behintzat, orduko erdal akademiak ez zuen inoiz txintik atera euskaldun, katalan eta galegoen hizkuntz eskubide zapalduen alde.

Bai, orain, demokrazi garaian euskararen delako “inposaketa”z gora-goraka ari zaizkigun horiek non ziren, adibidez, Emiliano López Becerra alias “Desperdicios” edo Calle Iturrino haien garaian, non eskolako eraztunen denboran? Nola ez dira lotsatzen, oraingo irakaskuntza sistemaren ustezko “abusutxoak” salatzen, berek aurreko gehiegikeria etnozida erraldoien aurrean ahoa, ondo pozik gainera, itxita zeukatenean? Zer esan, azkenik, gure herri-balioen mintegi ahul eta bakarrak izan diren ikastoletan oraingo terrorismoaren iturria ikusi nahi duten ero horiez? Ongi ixiltzen dute, adibidez, Espainiako eskola nazionalak hemengo jendearen kontzientzia deseuskalduntzen eta, erdal izpiritu nazional inperiala bultzatzeko, galego, katalan eta euskaldunekiko intolerantzia amorratuena ereiten hainbeste urtetan egindako lan negargarria, kanpoko eta bertokoen arteko ezinulertu eta ezinikusi gehienen sorburu nagusia horixe izan dela susmatu ere egin barik.

Lainope beltz horretan, ordea, tenpluaren aldarean ñir-ñir ari den olio-lanparatxo dardartiaren antzera, Erribera kalean, zur iluneko egoitza tristean, gure hizkuntzak ere bazuen bere argia iluntasunean. Azkuek, bere jarrera apartidistari esker, ixilkako lana egiten segitu zuen bakean. Euskaltzaindia, legetik kanpoko egoera hartan, haren arrimuan toleratzen zen, iraute hutsezko bizitza motelaz bazen ere.

Haren inguruan, pixkanaka, bertoko euskaltzaleak hasi ziren biltzen: Eusebio Erkiaga lekeitiarra, Federiko Krutwig getxotarra, Luis Villasante gernikarra, Bernardo Garro “Otxolua” mundakarra, eta Mikel Arruza eta Alfonso Irigoien bilbotarrak. Hauekin giro berria sortu zen. Euskaltzaindiak bere fundazioatik izandako helburuetako bat, hizkuntzaren batasuna alegia, berriro plazaratu zen, Krutwig euskaltzainaren eraginez batik bat, lapurtera klasikoaren inguruan.

Batasun hori, ordea, asmo berritzaile eta nolabait iraultzaileez planteatzen zen oraingoan. Mendearen hasieratik Eleizalde eta Kirikiño “kapeladunak” euskara kaletartu guran zebiltzan, hura baserritar eta arrantzale txapel-girotik kanpoan ere hedatzeko asmoz. Gerra ondoko batasun-gogoan, ordea, ez zegoen hizkuntza hiri-giroan sartu gura hutsa, horrekin batera euskara kultur eta zientzi arloetan erabiltzea baizik, hau da, Lizardik gerra aurrean nahi izandako oromintzo hura lortu nahia, euskara edozertarako hizkuntza bihurtzea alegia. Hortixek abiatu ziren oraingo euskara batuaren aldeko lehen pausoak. Eta merezimendu hori, nik uste, aitortu behar diegu euskaltzain horiei.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan Alfonso Irigoienek urte askotan ihardun zuen lanean Etxaide euskaltzainburuaren garaian, idazkariorde. Berari esker, gure mintzairaren beste agerkeria handiagoetarako baimenik lortzen ez zen garaian, herri-poesia, bertsolaritza, alegia, berriro ermetzen eta hedatzen hasi zitzaigun, eta bertsolari-txapeletak ere bai. Horrekin hainbat urtetan burua makturiko euskaldun jendeak berriz ere hartu zuen euskal arnasa eta itxaropena. Bestetik, ez dut uste gehiegikeria denik esatea, Euskaltzaindiak 1959an plazaratu zuen euskal hitzen definizioa, ordurarteko garbizalekeria bidea hautsi zuena, neurri handiz Alfonso Irigoien eta Aita Luis Villasanteren herri-bideko eraginari zor zaiola. Eta bi-biek badakite horrek zenbat kritika ekarri zien.



Xabier Kintana eta beronen aita: Benjamin

Euskaltzaindiaren itxurazko babespean, beste ekintza batzuk ere egiten ziren. Gogoan dugu, esaterako, hirurogeiren hamarkadan Txinpartak teatro taldearen lana, Manuel Ziarsolo "Abeletxe"ren zuzendaritzapean.

Alfonso Irigoienek Julia Berrojalbiz eta Tere Errotaetxeekin eginiko gestioej esker sortu zen gainera, Euskal Herriko gerra ondoko lehen ikastola legala 1965.ean, Resurrección María de Azkue izenekoa, hasieran Elkano kalean kokatu eta geroago Laurora aldatua. Horrek, gure irakaskuntzaren historian mugarririk garrantzitsua izateaz gainera, gainerako guztientzat zirrikitu eta bidea ireki zuen, ikastolen mugimendu sendoari hasiera emanez.

Tolosatik Labaien oraintsu hilak hala eskaturik, Irigoien bilbotar poeta gaztetxo bat ezagutzera joan zen, euskal bideetan laguntza eskaintzeko. Gabriel Aresti zeritzon, eta harrez gero maiz laguntza eskaini zion bertsolari-txapelketen epaimahaikide gisa.

Lehen, Bilbao, leku askotako euskaldunen bilgune zela esan badut, orain gaineratu beharra daukat anitz ideologiaren elkartoki ere bazela. *La Concordia* moduko kafetxeetan, adibidez, Irigoien eta Aresti Bilboko komunista eta sozialista espainolekin biltzen ziren, euskara eta elebitasuna zela eta, maiz haiekin eztabaida gogorak izanez. Borroka horiek guztiok, edonola ere, beti ere dialektikoak ziren, eta tolerantzi giro eta elkarren eragineko elkarrizketa horretatik abiatu hasi zen gure artean agertzen ezker kutsuko literatura, gizarte-tematika, eta, beste bandakoen baitan, euskaldunen eskubideak eta euskal literatura onartzeko joera hazkorra.

Gabriel Arestiren literatur lanek izugarriko eragina ukanen zuten orduko gazteen belaunaldian. *Maldan behera*, *Harri eta herri*, *Euskal Harria*, *Harrizko Herri hau* moduko obrek berrikuntza ugari zekarten hizkuntzaz, formaz eta mami-az. Mitxelenak berak esan duenez, liburu horietan Aresti, *avant le mot*, literatur euskara batuan idazten hasi zen, eta bere prosa, eta batez ere, bere poesiarekin euskal literatura beste maila batera igonerazi zuen.

Arestik gazteria ez zuen soilki, bere liburuen ederraz erakarri, tratua ere ona izaten baitzuen gazte-jendearekin. Ez gara gutxi harengandik adorezko hitzak jaso ditugunok. Bernardo Atxagak berak, duela gutxi, Santutxuko Karmelo ikastolan eginiko hitzaldi batean aipatzen zigun, non eta Bilbon hartu zuela berak euskaraz idazten hasteko lehen bultzada, eta noren eta Gabrielen eskutik, hain zuzen. Era berean, Oskorri musika-taldeak asko zor dio Bilboko poeta horri.

Jose Luis Alvarez Enparantza idazleak ere lotura hertsia ukan du gure hi-riarekin. Ingeniaritza-ikasketak hemen egin zituen denboran, berrogeita hamarren hamarkadan, Txillardegik bertoko giro euskaltzalea ezagutu eta Ekin taldea antolatu zuen, hizkuntzaz eta politikaz kezkatua. Hor, nik dakidala, A. Irigoien ere aritu zen.

Euskaltzaindiaren aretoetan, bestalde, euskarazko eskolak ere ematen ziren. Irakasleen arteko bat Xabier Peña zen, Tolosako semea, mendizale, euskaltzale zintzo eta euskara ikasteko liburu baten egilea. Askok bera irakasle izan genuen.

Bilboko euskal mugimenduaren beste pilare bat Gereñotar nebarrebak izan dira, Xabier famatuena izan arren. Gabriel Arestik Gereñotarrak biziki estimatu eta honela definitzen zituen: “Horiek inurriak bezalakoak dira. Ixil-ixilik, ekiniaren ekinez eta beti aurrera ari dira, lege-oztopo guztien kontra, eragozpen eta debekuen trabak etengabeki horzkadaz horzkada janez eta birrinduz, azkenean etxe osoa, termitak bezala, beheara erorerazi arte”. Haiak bultzatu zuten *Txis-tulari* aldizkaria, Herri-irratiko euskal programak eta CINSA argitaletxea, horren bidez euskal ipuinak, liburuak, diskoak eta jolasak plazaratuz.

EDILI izan zen Bilbok sortzen ikusi zuen beste argitaletxe bat, Castor Uriarte zeritzon arkitekto eta euskal mezenas baten babesean. Hor ikastolen mugimenduaren alde hainbat lan egin duen Jesus Atxa Elorriotarra ezagutu genuen. Horren inguruan ibili zen, halaber, Jesus Idoeta abokatua, *Ama Lur* euskal filmearen bultzatzaile nagusienetako bat.

Bada garai hartako beste pertsona bat, gaur, bidegabeki, ia erabat ahantzia: Miguel Angel Astiz kazetari nafar euskaltzalea. Hark, erdaraz bazen ere, *La Gaceta del Norte*-ren orrialdeetatik, euskal ekintza guztiak barreiatzen zituen, gogo eta adore eskergarriaz.

Eta nola utz dezaket hemen aipatzeke aita Imanol Berriatua, Elantxobeko seme ospetsua? Frantziskotar euskaltzale langile eta zorrotz hau urte askotan Bilbon argitaratzen zen eta Angel Zelaieta zuzendari zuen *Anaitasuna* aldizkariaren zuzentzailea izan genuen, Euskaltzaindiko aditz batzordekidea, euskara irakasteko metodoen egile, Israelgo eredueta oinarrituriko euskara errazaren bultzatzaile eta irakasle suharra. *Anaitasunako* bere lanari esker euskararen batasunak bide luzea egin zuen, ez eta ez, soilki, Bilbao eta Bizkaiko eremuan, Euskal Herri osoan baizik. Asko gara geure burua haren ikasketzat daukagunok, eta zilegi izan bekit hemen harekiko ene esker oneko zorra kitatu nahi izatea.

Bazen Bilbon beste aldizkari bat, *Agur* zeritzona, praktikan Josu Arenazak zuzendua. Hartan euskalkiei, bizkaierari batez ere, eutsi nahian euskara batua-ren premia bera ukatzen zen. Nahiz eta gehienetan polemiko xamarra izan, haren kritika batzuk, bestalde, ez ziren guztiz oinarri gabeak, eta euskalkiek ziztuzten aberastasun berezietz konturatzeko ere balio izan zituzten.

Kili-kili aldizkaria ere bazen, Retolaza jaunak haurrei begira egina. Hasieran bizkaieraz besterik ez zen argitaratzen, baina gero, euskara batuko edizioa ere izan du.

Beste elizgizon euskaltzale bat aita Justo Mari Mokoroa izan zen, jaiotzez Tolosarra. Hemengo eskolapioen ikastetxean hogeita hamar urte baino gehiago eman zituen eta bilbotar askok frantses irakasle izan genuen bera. Jadanik gerra garaian Ibar ezizenaz argitara eman zuen *Genio y Lengua* liburuan argi agertu zuen kezka nagusiaren bidetik, aita Justok bere bizitza osoan euskal esaldi jatorrak biltzen ihardun zuen, azkenean, *Ortik eta emendik* izenaz, bi tomo ede-

rretan 1990. urtean publikatu arte; euskaraz inoiz egin den esalditegirik osoena, hain zuen. Eta eskolapioak aipatzean, ez nintzateke ongi sentituko bertako hainbat irakasleren, fraide eta laikoren, bizkaitar, gipuzkoar eta nafarren, formazio-lana aipatuko ez banu. Haiek, beren ohizko literatur, matematika, erlijio edo filosofi eskolen barruan, ez zuten inoiz okasioa galtzen, zeharka bederen, gure herri eta hizkuntza orduan zapaldu hauenganako interesa eta maitasuna iratzartzeko.

Karmeldarrek ere maila handiko lagunak izan dituzte euskal eremuan, eta Bilbok, Santutxuko auzategiko komentuan Aita Lino Akesolo dimostarra izan du bizilagun. Haren artikulua, ikerlan eta, batez ere, psalmoen itzulpen bikainak ez dira bazterrean uztekoak.

Bilboko elizgizonen artean aparteko aipamena merezi du don Klaudio Gallastegik, Elorrioko seme eta San Antongo parroko izandakoak. Bera hasi zen Vatikanoko Kontzilioaren ondoan Bilbon lehenengo euskal meza ematen. Gaurko gazte-jendearentzat elizkizun bat euskaraz lortzea seguraski garrantzi gabeko anekdota hutsa dateke, baina garai hartan gure hizkuntzan meza bat izatea ezo-hiko arrakasta zen. Izan ere, don Klaudioren mezak euskaldunentzat elkarrekin arriskurik gabe biltzeko toki eta esperantzarako leiho ere baziren. Bestelako euskal kultur ekintza publikorik ez genuenean, Bilboko euskaltzale asko —fededunak eta fedegabeak— hantxe elkartzen ginen, eta San Antongo euskal mezaren ondoan, eliz atarian Boni Fernández eta bere lagunei esker txistu-kontzertua entzun, klandestinitateko azken berriak elkarri konta, eskuz esku ixilpeko paperak pasa eta lehen euskaldun taldetxoak eratzen ziren, eta Bilbao Zaharreko tabernetatik zehar, txikito batzuk edaten genituen bitartean, garai hartako euskaldun berriok euskaraz praktikatzeko aukera izaten genuen.

Ikastolako munduari erantzun guraz IKER enpresa ere sortu zen Bilbon, testu eta material didaktikoak prestatu eta argitaratzeko, *Saioka* liburu-sorta famatua esaterako. Horren inguruan irakasle eta pedagogo asko bildu ziren, eta hizkuntz berezilari onak ere bai, adibidez, Xabier Mendiguren, Joseba Agirreazkuenaga, Roman Basurto, Rafael Lopez Atxurra eta beste asko.

Baina hirurogeita hamarren hamarkadan ez ziren ikastolak gure hizkuntzaz arduratzen ziren leku bakarrak. Unibertsitatean ikasleak ahal moduan konponzen ziren euskara-eskolak antolatzen. Mundu zabaleko adibideak ikusirik, badirudi hizkuntza ezofizial eta minoritarioak, unibertsitatera heltzen direnean, beti ere letra-arloan hasten direla erabiltzen, literatura, historia, geografia etab. emateko. Gurean ordea, letra fakultaterik ezaz, Bilboko Industri Ingeniarrien Eskolan ibilirikoeak bultzatu zuten, lehen aldiz, unibertsitate mailako irakas-kuntza euskaraz, fisika, matematika eta kimika, adibidez, gure hizkuntzaz azalduz. Eta ene ustez hori guztiori Jose Ramon Etxebarria fisika-irakasle gernikarrari zor zaio batik-bat.

Deustuko Unibertsitatean giroa ez zen orduan inondik ere euskaltzale. Aita Patxi Altuna, Xabier Arzalluz eta Gotzon Garate gipuzkoarrak, Gregorio Mon-

real eta Rikardo Zierbide nafarrak eta Alfonso Irigoien, Jose Urrutia, Jose Antonio Obieta, Andres Mañarikua, Mari Angeles Larrea, Karmele Rotaetxe eta Adrian Zelaia bizkaitarrak genituen, erdal itsaso hartatik buru tente ageri ziren irla bakarrak, zeinek bere arloan, maiz goikoen begi mesfidati.edo eta burlatien pean, euskararen aldeko lana eginez. Edonola ere, Euskal Kultur Mintegia sortu zen orduan Deustuan, ikasle euskaltzaleen biltoki.

Urte batzuk lehenago ezagutu nuen nik, unibertsitate horretako korrido-reetan, Jose Antonio Ardantza jauna, gaur lehendakari duguna. Orduan, ikasle oraindik, gehienetan Juan Jose Pujanarekin batera ibiltzen zen, elkarrekin beti euskaraz mintzatzen. Ni neu, garai hartan gure mintzaira ikasten hasi berria nintzen eta, zinez diotsuet, izugarrizko inbidia ematen zidaten. Sentimendu horrek eraginik, lagun bi haiek ulertu eta beren hizkuntz mailara heldu arte ez nintzela geldituko esaten nion neure buruari. Eta, egia esan, haien exenpluak ere euskara ikasten segitzeko adore eman zidala, aitortu behar dut.

Euskararen irakaskuntzan arituriko guztiak, ordea, ez dira beti euskaldunak ez bertokoak izan. Kasu bat aipatu nahi nuke, Ricard Jordana irakaslearena, alegia, herrien arteko solidaritatea azpimarratzeko. Jordana katalana zen, eta da, oraindik bizirik baitago, eta hirurogeita hamarren dekadaren Bilboko O.H.O.rako Irakasle Eskolan ari zen ingelesa irakasten. Gure hizkuntza orduan oraindik ofiziala izan ez arren, ikasleek beren kontutik euskara-klaseak antolatzen ari ziren, eta Jordana jauna bera ere, jakin-minez, haietara joaten zen. Baina euskara irakasteko generabilen metodologia aski zaharkitu eta desegokia zela ikusirik, berak arlo horretan zeukan esperientzia eskaini zigun borondate onaz, eta haren eraginez sortu zen, adibidez, *Euskalduntzen* metodoa, geroago, Imanol Berriatuak Israelen ikasiriko metodologiarekin osatu eta hobetua.

Lehen euskal hiztegi batuak ere Bilbon argitaratu ziren, hots, 1970.ean Arestik eta biok prestatuak *Batasunaren kutxa* eta handik zazpi urte geroago Bilboko irakasle talde batek elkarlanean moldaturiko *Euskal Hiztegi Modernoa*, bere edizio eta moldaera ugariekin, gure hizkuntza finkatzeko orduan eragin handikoa.

Aipatzekoa da, halaber, Bizkaiko Elizak Derioko bere Apezgaitegi izandakoan eraturiko Labayru ikastegia, Ander Manterolaren zuzendaritzapean, horren inguruan Adolfo Arejita eta beste lankide batzuk Bizkaiko euskararen alde lan handia egiteko aukera izanez.

Bilbao eta euskararen etorkizuna

Orain arte Bilbon egindako gauza batzuk kontatu ditut, beharbada era desordenatuegian eta, are okerrago, seguraski garrantzi handiko pertsona eta ekintza batzuk ordenagailu barruan ahantzirik. Barkatu, beraz. Baina hori guztiori honez gero joana da. Halere, historia egunero egiten da; egunez egun egiten

dugu guztion artean. Eta orain arte ongi egindakoaz poztu eta gaizki egindakoaz tristatzeko baino gehiago, historiak, lehenagoko gauzetan oinarri hartu eta hemendik aurrera zer egin irakatsi behar digu. Eta, egon, asko dago oraindik egiteko.

Hirurogeita hamarren dekadari Bilbo euskal kulturaren dinamizatzailerik nagusietako bat izan bazen, paradoxaz, behin autonomia etorri eta gero bizkortasuna motelduz joan dela esan daiteke. Orduan euskalgintzan arituriko asko Euskaltzaindian, irakaskuntza, euskaltegi, unibertsitate, politikan eta enpresetan sakanabaturik daude. Egia da, alde batetik, horien eraginez Bilbon milaka euskaldun berri eta landu sortzen direla, bai haur eta bai nagusien artean, baina ez da gezurra, bestetik, aspaldion ez dugula hemen euskal aldizkaririk, ez eta lehen bezalako kultur plataformarik euskaldunik. Bilbon argitaratzen den gehiena, zoritxarrez, erdara hutsean dago, eta leku ofizialeko agerkariak erdaldunen esku daude.

Gasteiz Euskal Autonomi Elkartearen hiriburua eta Donostia kulturaren hiria izendatu zirenetik badirudi Bilbo zokoraturik, ahuldurik, gogogabeturik gelditu zaigula, merezi gabeko gaztigu bat jaso bagenu bezala. Metroa eta Guggenheim hori dira, baina ez bata ez bestea dira euskaraz mintzatzen, gure kale-izen asko bezala.

Bilboko giroak, Bizkaian eta bere eraginpeko inguruan erdal modak jartzean, erantzunkizun larria izan du horko jendeak erdalduntzean. Euskalduntze-kanpainak hasi zirenean, aldiz, Bilboko uhin horiek laster hedatu ziren gure geografia osoan. Ikastolekin, irakaskuntza publikoarekin, administrazioarekin, irrati-telebistarekin lan handia egin da, baina geure botxo oraindik guztiz euskaldundu barik daukagu. Badago, bai zer egin, asko eta handia, gainera. Are gehiago euskararen eta euskalduntzearen kontrako boz gero eta lotsabakoagoak entzuten hasi diren denbora honetan.

Beraz, aurrera segitu behar dugu. Ekintza berriak bultzatu ahal ditugu, elebitasun-legea betez, euskaldun bizi nahi duenari horretarako aukera guztiak emanez: irakaskuntza, administrazioan, osasun, justizi, lantoki, merkatalgo eta olgeta-lekuetan. Eta hor guztiok daukagu, nork bere arloan, zer egin. Bilboko ume, gazte eta heldu euskaldunak euskaraz mintzatzeko eta ikasirikoa praktikatzeko lekuak sortu eta antola ditzakegu, baina era atseginez: euskara lanerako, kulturarako, pozerako, humorerako, kanturako, lagun arteko harremanerako, maitasunerako hizkuntza bizi eta alai egiteko.

Administrazioak bideak asmatu beharko ditu kale, denda, garraio eta eragilerik guztietako zerbitzuak bertoko herritar guztiak errespetatzeko moduan egon daitezkeen, kartel, errotulazio eta pertsonal elebidunekin, alegia. Euskaldunok, aldiz, lotsa galdu eta praktika dezagun edozein lekutan euskaraz berba egin eta euskaraz onartuak izateko eskubidea. "Euskaldun den gizon orok altxa beza burua" esan zuen Etxaparek, eta oraindik gehiago bilbotarra bada, gehituko nuke nik.

Euskal Herri guztia guri begira dago, ez dakit onenak baina bai gehienak garelako; guk zer egingo, neurri batez besteek imitatuko dute. Horra ba geure erantzunkizuna: euskal hiritar tolerantreak hezi, baina beren eskubideetan amore emateko prest ez direnak. Nahi badugu, ez da ametsa izango; eta seguru egon, zerbait benetan nahi izanez gero, hori bai, ekinaren ekinaz, azkenean lortu egingo dugu.

* * *

Amaitzera noa. Duela gutxi, Euskal Herriko hauteskundeetan aurkeztu den politikari ezagun batek “ez dakiela euskaraz, ez dela euskara ikasten ari, eta ez duela ikasteko asmorik ere” esan du publikoki. Horrek zalaparta eta eskandalu handiak sortu ditu euskaldunen artean, eta askok, arrazoiak, bere anti-euskalduntasuna aurpegiratu diote. Nik ez dakit. Horren aurkako politikari askok, hitz horiek esan ez, baina gauza bera egiten dute: ez euskara jakin, ez ikasten ahalegindu, ez ikasteko asmorik izan, eta hala eta guztiz ere abertzaleak omen dira. Non da beraz diferentzia? Euskaldunok, hiritar guztiok, inora ez garamatzen joera hipokrita hori salatu beharra daukagu. Beren eginetatik eza-gutuko dituzue, zioen nazaretarrak. Bihotz barruan omen daukagun sentimenduak ez gaitu salbatuko, horren eraginez kanpoan egiten eta praktikatzen dugunak baizik.

Eta ez da gisa, euskara bultzatzeko ahalegin kolektibo honetan, lanpostu bila ari den kalegarbitzaile, atezain edo medikuari euskara jakitea merezimendu puntuagari edo derrigorrezko moduan eskatzen zaien bitartean, kargu askoz ere goragoa izan arren, politikariei beste horrenbeste ez eskatzea. Diputazio-buru, alkate edo Hezkuntz Sailburu izateko euskara jakin beharrik ez badago, nolako eskubide moralaz esango diogu geure hizkuntza ikasteko, udaleko idazkari, udaltzain edo irakasle bati?

Hemen, geure artean, maila goreneko politikari eta jaun-andre publikoak ditugu, eta beren etorrerarekin egin diguten ohorea bihotzez eskertu nahi diet guztiei. Jaun-andreok, zeuek ere Euskal Herriaren eredu zarete, eta jendea begira duzue. Euskaltzaindiak arauak, normak eta kontseiluak ematen ditu; zuek, lider eta buruzagi moduan, zeuen hitzez eta esanpe pertsonalaz, jendearen gidariak zaituztegu. Hortaz, erantzunkizuna guztiona da. Geure denboran problema konkretu hauen aurrean izan dugun portaera nolakoa izan den, epaituko gaitu Historiak, eta nik neuk behintzat pentsatzen dut atseginagoa litzatekeela geroak gugatik “haiei esker” esatea, “haien erruz” deitoratzea baino.

* * *

Los personajes bilbainos, originarios o residentes, que he mencionado han sido, en general, autores de merecida fama. Al citarlos, más que recordar unos hechos históricos, he tratado de integrarlos en esa cadena vivencial que nos une a los presentes con un pasado que sentimos como nuestro y del que, es-

trictamente, somos su continuación activa y actual. Y sin embargo no todos los que han ido conformando ese caldo de cultivo para la lengua vasca han sido necesariamente grandes de las letras.

También ha habido entre nosotros otras personas, que no por más humildes han sido menos influyentes en nuestra vida nacional. Estoy seguro que todos recordamos a aquel viejo gudari, a la maestra progresista, al sacerdote amigo o a esa anciana vecina que en el tiempo de la dictadura franquista nos pasaba a escondidas algún libro de antes de la guerra, ya amarillento, sobre la lengua y la cultura vascas, muchas veces desfasado, pero con el gran atractivo de lo clandestino y prohibido, y que en cualquier caso siempre nos hacía palpitar de emoción.

Sería injusto olvidar aquí la gran labor que realizaron en aquellas difíciles circunstancias nuestras esposas o maridos, tanto por su colaboración en la transmisión de la lengua a los hijos, como en el apoyo y ayuda a mantener y mejorar en todos nosotros el idioma en su uso vivo, afectivo y familiar. Ahí están los numerosos padres, en fin, que sin saber euskara y sin medios de aprenderlo, deseaban recuperarlo en sus hijos, enviándolos a las ikastolas y prestando a éstas toda su colaboración.

Igualmente hemos de recordar, a los numerosos de euskaldunberris, afañados en el aprendizaje y recuperación del idioma de un pueblo que sienten como suyo; esos que renunciando a la cómoda y egoísta frase de “hablar en castellano, para que nos entendamos todos” han preferido respetar los derechos ajenos con un honesto y ejemplar “he aprendido euskara para no obligar a los vascos a tener que hablar por mí en español”.

Habida cuenta del gran riesgo que corrían, merecen igualmente una mención especial los libreros, aquellos que nos conseguían, no se sabe muy bien por qué medios, los libros prohibidos por el régimen. Y estando aquí, en el casco viejo de la villa, no puedo menos que recordar la gran labor realizada por librerías de tanta solera como la de Verdes Achirica en la calle Correo o la Librería Bilbaina a cargo hasta hace un año del entrañable donostiarra Pepe Gorriti, bajo los arcos de esta misma Plaza Nueva.

Otras veces eran los familiares los que, al contarles nosotros en nuestra infancia los comentarios despectivos hacia lo vasco que bastantes maestros de la época “preautonómica”, aparentemente tan abnegados y alejados de la política, nos habían enseñado en la escuela, se rebelaban de manera espontánea y nos corregían aquella información errónea y malintencionada.

Sobre esto, guardo en la memoria un recuerdo especialmente querido. Yo no había cumplido aún los nueve años y por entonces estudiaba en las escuelas públicas de la Viuda de Epalza, conocidas popularmente como las del Tívoli. Aquel día el señor maestro nos había hablado de las concordancias vizcaínas, esas que, con su “sabidurensia”, tan bien caricaturizaba Chomin del Regato,

cuya imagen, dicho sea de paso, presidía hasta hace pocos años la entrada de un centro social abertzale de Barakaldo, supongo que por considerarlo un gran benefactor del País. Pues bien, aquel buen maestro, Don José María, después de burlarse de los desgraciados que decían “el vaca” y “la coche”, nos explicó que el vascuence no era más que un vulgar dialecto, ignominiosa palabreja que en sus labios sonaba a jerga hablada por ignorantes, parias y otras gentes de condición vil y plebeya.

Al llegar a casa comenté aquello tan divertido con mis familiares. Un tío materno, de padre euskaldun y muy orgulloso de sus apellidos vascos, además de aprobar las palabras del maestro, añadió de su cosecha que el vascuence no era ya más que algo muerto y sin ninguna utilidad. Pero, curiosamente, en nuestra casa el euskara tuvo un inesperado defensor. Y no se trataba de ningún intelectual, sino de un simple carnicero, que aunque residía en Bilbao desde los doce años, por haber nacido en Santander, había tenido que soportar más de una vez, y de personas tan castellano-hablantes como él, el calificativo de maqueto.

El inició una acalorada discusión con mi tío, rebatiéndole que el vasco fuese un dialecto, y diciendo que, personalmente, ya le gustaría poder hablar aquella “lengua muerta” que gozaba de tan buena salud en boca de los tratantes y ganaderos con los que se relacionaba en su actividad comercial. Como ya lo habréis adivinado, se trataba de mi padre, aquí presente, Benjamín Quintana, al que deseo expresar públicamente mi más cordial y sincero agradecimiento.

Para él, y para otras muchas personas similares a las que tanto debemos, nacidas unas en el País y otras fuera de él, y que desde la penumbra han contribuído a que esa llama de afecto por nuestros valores propios continúe y no se apague, para esos que nunca aspiraron a inmortalizarse en los libros, precisamente para ellos, señoras y señores, queridos amigos, os pediría un aplauso. Eskerrik asko.